

ARRANKUDIAGAKO UDALA

B A N D O A

Txakur batzuk sortzen ari diren arazoengatik, batez ere herriko berde gunetan, gero eta kexa gehiago jasotzen ari gara.-

Beraz, gogorarazi txakurren jabeei betebeharrak dauzkatela Euskal Autonomia Erkidegoan Txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak zehazten duenaren arabera.-

4. Artikulua.- Jabearen edo edukitzailearen betebeharrak.-

2.- Hiri barruko bide eta gunen publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gunen komunetan ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta, gehienez, 2 metrokoa.- Betebehar hori ez betetzea arau-hauste larria izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikuluaaren arabera.-

3.- Debekatuta dago txakurren gorozkia bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea.- Debeku horri jaramonik ez egitea, arau-hauste larria izango da Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4.c) artikuluaaren arabera.-

Toki hauek biztanleek gozatzeko dira eta batez ere umeek.- Gutxieneko neurri hartuz gero, denek erabili ahal izango dituzte, inolako arazorik gabe.- Beraz, lehen aipatu ditudan neurriak betetzea eskatzen dut.-

Arrankudiagan, 2011ko martxoaren 1a.-

ALKATEA